

ASOM

31

IGANDEKO BERRIA
2023ko otsailaren 19a

Paul Urkijo

«Guztiona den» iturburu batetik edan du, ekoizpen handieneko euskal filma sortzeko: 'Irati'. Euskal mitologia eta natura dauzka filmeko protagonistatzat, eta estilo errealista landu du, horien mesedetan.

• 32-33

Literatura • 34

Modu zehatz eta biluzian, Sharon Oldsen olerkiak haren eguneroko bizitzaz nahiz komunaz mintzo dira.

Musika • 38

Margo Pricek sustraidun rockaren eta poparen zantzuak dituen bere azken lana kaleratu zuen urte hasieran: 'Strays'.

«Filma egiteko hautuak erraietatik eta bihotzetik eraman nau»

Paul Urkijo • Zinemagilea

Euskal zinemagintzan jada mugarri bat da 'Irati': ekoizpen handi bat, Erdi Aroan girotutako fantasiako film bat. Euskal mitologia irudikatuzko maitasun ekintza bat ere bai, Paul Urkijo zuzendariaren esanetan.

Andoni Imaz Gasteiz

Inpresioa eragiten du pantailaren handiak areto hutsean. Kanpoan, merkataritza guneko zinemen atarian, bada nahikoa jende eserleku guztiak betetzeko, *Irati* filma estreinatuta aurretik ikusteko gozoz. Handia izan behar du pantailak, Paul Urkijo Alijo (Gasteiz, 1984) zinemagilearen ambizioa berdintzeko. Ambizioa, ez soilik ekoizpenaren neurriagatik –4,3 milioi euroko aurrekontua izan du; konparazio baterako, *Handia*-k 3,5ekoa izan zuen–, baizik eta euskal mitologiako pertsonaiak eta historiako pasarte ezagunak irudikatu dituelako bere erara, fantasiako mundu berezi batean. Datorren ostiralean estreinatuko dute filma Hego Euskal Herriko zinemetan, zenbait jaialditan erakutsi ondoren, eta sarien bultzada jasota –ikusleen saria irabazi du Sitgesko Zinemaldian eta Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Aste- an, besteak beste–.

Izena duen guztia bada da filmaren leloa. Irati izena zuten hasierako zirriborro haiek?

Ba, ez dakit. Argi neukan euskal mitologiari eta Euskal Herriko Erdi Aroko historiari buruzko pelikula bat egin nahi nuela, hori bai. Betidanik. Kontua da *El ciclo de Irati* komikian [*Irati*ko zikloa, Joxean Muñozek idatzia eta Juan Luis Landak marraztua] aurkitu nituela pertsonaia batzuk komikiak edaten duen iturburu horretatik edateko nik ere. Iturburu hori euskal mitologia da, guztiona den zerbait, eta Eneko Arista eta Irati hara jotzeko bideak dira. Moldaketa libre bat egin dut: pertsonaia berri pila bat sartu dut, egoera historikoak ere bai –Orreagako guda, adibidez–, eta nire eremura eraman dut. Hortaz, *Irati* izan behar zuen, baina pelikularen bihotza euskal mitologia da berez: *izena duen guztia omen da*, ez; guretzat, *bada*.

Film bat nola izan liteke aldi berean handia eta pertsonala?

Posible izan da, filma egiteko hautuak erraietatik eta bihotzetik eraman nauelako. Ez da izan gauza zerebral bat, baizik eta: «Hau egin behar dut; ahal dudan moduan, daukadan baliabideekin eta mugekin, baina egin». Niretzat inportantea eta beharrezkoa zen. Neure buruari galdetu izan banio, ikuspegi errealista batetik, hau egitea posible ote zen, ezetz esango nuke. Eta jende askok, ekoizleek-eta, ezetz esan didate. **Nola konbentzitzen da jendea ezinezko film bat egiteko?** Hori da nire lana. Laburrak egiten ditudanetik jolastu behar izan dut mugekin. Beti egin dut fantastikoa, eta genero garestia da berez, askotan behar direlako egoera bereziak, efektuak eta horrelakoak. Hortaz, kontua da: «Nola egin dezaket hau posible?». Baliabide artistikoak bilatu behar dituzu.

Adibidez, Orreagako guda egin genuenean, ez genituen figurante asko, ez dira pelikulan dirudite-nak. Hori filmatzeko modua bilatu behar izan nuen: kamera lurreran jarrita, lurra odolez beteta ikusten da, ama lurraren odola izango balitz bezala, eta pertsonaiak kamerara erortzen dira. Izaki fantastikoak erakusterakoan, berdin: behe lainoarekin jolastu dut, errealismo magikoaren puntu iradokitzailea bilatzeko, eta ez efektu berezi handiak behar dituen fantasia hori. Gainera, ueste dut filmari ondo dator kiola. **Komikitik abiatu bai, baina gidioa zeuk idatzi duzu, bistakoa da irudi bakoitza zaindu duzula, abestiaren oinarria ere zurea da... Filma handia izanagatik, dena kontrolpean izan duzu?**

Hori da nire lan egiteko modua: dena argi edukitzea, baina gero organiko izatea etortzen diren gauzeikin eta talde osoarekin. Gidoia idazten dudanez lantzen dut pelikularen alde bisuala. Ilustratzailea naizenez, nik egiten di-

tut arte kontzeptualak, *storyboard*-a, joaten naiz lokalizazioetara, eta bilatzen ditut erreferentzia musikalak. Oraingoan, abestiaren abiapuntua eman nien, melodia bat, baina soinua banda guztia haien lana izan da [Maite Arroita-jaregi eta Aranzazu Callejarena]. Egia esan, denek diote nahiko burugogorra naizela, kontrolatzailea; baina uzten diot bakoitzari berean aritzen.

Zer irudi izan zenuen gogoan filmaren proiektuari ekitea erabaki zenuenean?

Uste dut euskal mitologiako iruditeria zela, imaginario kolektiboa dagoena: basajauna basoaren behe lainoan, Roldan adarrarekin eta harriak erortzen Orreagan,



Neure buruari galdetu izan banio filma egitea posible ote zen, ezetz esango nuke. Askok, ekoizleek-eta, ezetz esan dute».

«Errementari»-rekin zorizko urte eman nituen, eta 'Irati'-rekin, best; espero dut hurrengoan gutxiago izatea».

Mari kobazuloan sugearekin oinetan, Lamia ilea orrazten errekan... Iruditeria hori guztia pantailara eramateko grina izan zen. **Topikoa da esatea film bat zinema aretoetan ikusteko egina da goela, baina Irati ikuskizun handi bat izateko sortu duzue, nabarmen.**

Saiatu naiz egiten ahalik eta esperimentziarik epikoena, handiena. Erreferentziatza izan ditut *Lawrence of Arabia* eta *Doctor Zhivago*, David Leanen pelikula handi horiek, Euskal Herriko paraje natural ikaragarriak handi erakusteko. Zinemari ikusteko egin dugu. Gainera, soinua erakusteko sekulakoa da, Josu Gonzalezek egindako Dolby Atmos nahasketa potentarekin.

Zein izan dira istorioa filmatzeko jarraibide nagusiak? Berezko tokietan filmatu beharrekoa zen?

Naturan barneratzeko bidaia bat izan behar zuen, errealista, naturak protagonismo hori hartzeko, zeren euskal mitologiako pertsonaiak eta jainkoak guztiz errotuta daude naturan. Eta lokalizazioek errealak eta ederrak izan behar zuten, badauzkagulako.

Ikusgarria da filmak duen argia...

Gorka Gomez izan da argazki zuzendaria; beti egin dut lan harekin, labor guztietan, eta ondo ulertzen dugu elkar. AEBetan dabil lanean, baina hemen jendeak ez du asko ezagutzen. Ezagutuko dute. Filmaren %90 inguru argi naturalarekin filmatu dugu. Nahita ere ezin genituen fokua eraman mendira edo kobazuloetara. Eguzkiaren arabera planifikatzen genuen, eta, kobazuloetan eta barrualdeetan, suarekin argizatuta. Gorka maisua da horretan. Lortzen du argazki bat, alde batetik, espresionista, kontrastatua eta itzalak dituen, eta, beste alde batetik, naturalista, argi naturala delako. Horrela lortzen da, nire ustez, argazki erromantizista eder eta basati bat, oso piktorikoa.

Ezkutuan gorde duzue filmaren perletako bat: Mariren itxura misterio bat da bere momentua iristen denera arte. Momentu hori nion errespeturik handiena. Ea publikoak nola hartzen duen. Azkenean, Mari gure jainkosa da. Saiatu naiz aldentzen fantasia ipuinetako intxiru edo sorgin horretatik, eta eraman dut niretzat Marik daukan mamira: ama lurraren, ama jainkosaren natura paleolitiko eta aurreindoeuropar horretara.

Zure zinemaren ezaugarria dira eszenaratze landuak, baita ka-

mera mugimendu zehatzak ere. Hori da zure kontatzeko era?


Aktoreek, zuzendariak bereizteko, esaten dute batzuk teknikoak direla, eta ni talde horretan sartzen naute. Kamerak mugimendu bat baldin badu, aktoreak egin beharko du pausa bat fokua lortzeko, gero kendu... Niretzat, baliabide tekniko horiek guztiak baliabide narratiboak dira. Hala ere, hasieran segurtasun gutxiago daukazunez, dena kontrolatu nahi duzu. *Irati*-n, saiatu naiz ahalik eta organikoena izaten lokalizazioetan: nahiz eta *storyboard* guztia marraztuta eduki, pauso bat atzera eman, inguruko naturari begiratu, eta arnasten utzi. Nik ere ikasi egiten dut istorio berriak kontatu ahal.

Eneko Sagardoirekin lan egin duzu berriro, eta Edurne Azkara-te lehenengoz aritu da film luze batean, rol protagonistarekin, gainera. Zer moduz haiekin?

Izugarria da. Enekoarekin *Errementari*-n [2017] lan egin nuen, eta berak izan behar zuen Eneko Arista. Ezpata eta sorginkeria generoko pertsonaia arketipiko bat izateko arriskua du: fantasiako istorio bat da, eta hor daude sorgina, abadea, neska basatia, zalduna... Baina Eneko eta beste aktoreek kurba dramatiko sakona eman diote pertsonaiari. Edurne, berriz, sekulako aurkikuntza izan zen, castinga egin zuen lehen egunetik. Flipatu egin nuen: bera zen Irati. Haren alde basatia zeukan, eta magnetismoa ere bai.

Errementari-n, Arabako garai bateko euskara landu zenuen. Oraingoan?

Trataera berdina egin dugu, Iruñeko Erresumako VIII. mendeko euskara horren soinua bilatzeko, eta Gorka Lazkanoren laguntza izan dut horretarako, *Errementari*-n bezala. Linguistekin kontrastatu dugu, baina asmoo ez da izan ikerketa sakon bat egitea, baizik eta hizkuntzari tesura bat ematea, tresna bat izan



JAGOBA MANTEROLA / FOKU

dadin ikusleak filmaren barruan sartzeko.

Errementari-n pentsamendu ilustratua dator, tradizionalarekin talkan; Irati-n, kristautasuna, mundu paganoaren tokia hartzera. Atsegin dituzu bidegurutzeak?

Bai, uste dut interesatzen zaizkidala horrelako egoerak, ustez munstroak diren izaki batzuei buruzko aurreiritzi bat daukagulako. *Errementari-n*, ilustrazioan daudenek ez dakite zer dagoen deabruen buruan, ezta errementariaren buruan ere. *Irati-n* ere ez: jainko paganoak desagertzen ari dira, eta inor ez da jarri haien lekuan; kristautasunarekin, jada ez da haien izenik entzuten.

Fantasia, historiari lotuta beti? Istorio garaitaldeek ez zaituzte erakartzen?

Fantasia librea interesgarria izan daiteke alde bisualetik, baina sinboloak oinarrituta baldin badaude mitologia erreal batean, garai historiko baten sinesmenak biltzen badituzte, horrek sekulako indarra dauka.

Esan duzu «bihotzetik» lan egin duzula. Ez dirudi maitasunaren garala denik...

Guillermo del Torok behin esan zuen erromantizismoa dela gaur egungo punka. Zinismo handia dago munduan, baina hala da: *Irati* maitasunez eginda dago, puntu infantil batekin ere bai, zeharo gardena eta zintzoa dena nire partetik. Ez diot beldurrik horri.

Egunero lan egin behar da bost urtean behin film bat estreinatzeko.

Zuzendariok beldur izugarria diogu pelikulen arteko bailarari. Asko kostatzen da film bat egitea, eta alokairua ordaindu egin behar da. Beti tartekatzen ditugu proiektuak, bat amaitzean beste bat hasteko. *Errementari*-rekin zortzi urte eman nituen, eta *Irati*-rekin, bost; espero dut hurrengoran gutxiago izatea.

Hazten jarraitzeko?

Saiatuko naiz. *Irati* estreinatzen denean atsedean hartuko dut, baina pare bat egunera urduritzen hasiko naiz, eta hurrengo istorioari helduko diot, seguru.

Zer egingo luke *Irati* arrakastatsu?

Lehenengo, jendea zinemetara joateak, filma pantaila handian ikusteak, eta Euskal Herriko ikusleei opari hau egiteak. Forma bat eman diet jaso ditudan ipuinei, baina ni katebegi bat naiz; nahi nuke filmak hemendik aurrera datozeinei aukera ematea gure kultura maitatzeko, kateari jarraitzeko, haien forma emanez.